



ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: PERKUSIOA 2022-03-16

Nori zuzenduak?

Graduko Perkusio interpretazio ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten musika ikasleei zuzenduak.

Sarrera probak 2022-2023 edo 2023-2024 ikasturteetan egin behar dituztenen izen-ematea onartuko da. Musikenek jasotako izen-emate kopuruaren arabera onarpen eskubidea gordeko du.

Jardunaldia aurrez aurre egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **izena emateko orria** betez. Epea **2022ko martxoaren 10ean** amaituko da.

Jardunaldiaren helburua

Perkusio interpretazio Gradua egin nahi duten ikasleei informazioa eta orientazioa ematea: sarrera proben egitura, eskatzen den maila, espezialitatearen eta ikasketa planeko irakasgai ezberdinen helburuak, bai eta irakasleak ezaqutzea ere.

Non egingo den

Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia
Europa Plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián
Telefonoa: 00 34 943.023.750
E-maila: info@musikene.eus
<https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Jardunaldiaren egitura

ALONSO, Javier; DOMINGO, Antonio eta FERRÁNDIZ, Lorenzo

10:00 Bilera informatiboa, bertan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak, osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikenek** eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak. Ikastegiari bisita gidatua egingo da.

11:00-12:30 Antonio Domingok bibrafono eskola emango die izena eman duten ikasle aktiboei

12:30-14:00 Lorenzo Ferrándizek marinba eskola emango die izena eman duten ikasle aktiboei

14:00-15:30 Bazkaltzeko atsedena, gure ikasleek parte-hartzaileekin esperientzia partekatzeko aukera emango duena

15:30-17:00 Jabi Alonsok kutxa eta musltiperkusio eskola emango die izena eman duten ikasle aktiboei

17:30 Musikeneko Perkusio Ensemblearen kontzertua

19:00 Jardunaldiaren amaiera

Perkusio jardunaldiari buruzko informazio gehiago jasotzeko jarri harremanetan Urko Arozena Haize eta Perkusio Departamentuko buruarekin: uarozena@musikene.eus